

## PRENTSA OHARRA

# **Lehendabiziko Irizar 18m-ko autobusek, % 100 elektrikoak, 0 igorpen, Bartzelonako hirian zirkulatuko dute abendutik aurrera**

Bartzelona, 2018ko azaroak 30

Transportes Metropolitanos de Barcelona (TMB) enpresak eta Irizar e-mobility enpresako ordezkariak gaur aurkeztu dituzte ofizialki % 100 elektriko, zero igorpen diren 4 autobusak, 18 metroko luzera dutenak, Bartzelonako Forum Eraikinean izan den ekitaldi batean.

Autobus hauek datorren abenduan jarriko dira zirkulazioan H16 linean (Pg. Zona Franca - Fòrum / Campus Besòs) eta 2014. urtetik hirian zirkulatzeko duten Irizar ie bus modeloko 12 metroko bi autobusei (% 100 elektriko, 0 igorpen) gaineratuko zaizkie.

Ibilgailu hauek erabat isilak dira eta ez dute kutsatzailerik isurtzen. Gainera, trakzio elektrikoari, elektronikari, energia biltegitzeko sistemari eta komunikazioei dagokienez Irizar Taldearen teknologiarekin daude hornituta.

Tranbiaren ezaugarri estetikoekin, ibilgailu honek 4 ate, 36 butaka, gidariaren butaka 1, gurgildun aulkientzako zonalde 1 eta orgatxoentzako zonalde 1 barneratzen ditu, eta guztira 147 bidaiari har ditzake. Autobusak abagune-karga bat eskatzen du, ibilbidean zehar egingo dena 4-5 minututan. Pantografo bat du, autobusaren sabaian hedatu eta karga-postearekin konektatzen dena, elkar-eragingarria. Gainera, kotxe-tokian gauean erabiltzeko kargadore bat ere beharko du.

Erosketa honekin Bartzelonako enpresak H16 linea % 100ean elektrikoa eta emisiorik gabea izan dadin linea hori eraldatzeko lehen faseari ekin dio.

**Proiektuari buruzko datuak**

- Ibilgailuak: 4 autobus, 18 metroko luzerakoak
- 36 plaza eserita (4 leku Mugikortasun Urriko Pertsonentzat), gidariaren butaka 1, gurpildun aulkientzako zonalde 1, orgatxoentzako zonalde 1.
- 147 pertsona hartzeko ahalmena
- 4 ate eta arrapala elektrikoa
- Kameraz hornitutako atzerako ispiluak

**Ibilgailu konektatua:** Ibilgailu bakoitzak USB hartuneak izango ditu barretan bidaiariak telefonoa kargatzeko eta baita wifia ere.

**Ibilgailuen karga:** pantografo bidezko abagune-karga, elkar-eragingarria eta karga kotxe-tokian

***Informazio gehiagorako:***

Ana Eceiza

[aeceiza@irizar.com](mailto:aeceiza@irizar.com)

Tel.: + 34 667181833

Aiora Contreras

[acontreras@irizar-emobility.com](mailto:acontreras@irizar-emobility.com)

Tel.: + 34 607140629